



EBAZPENA, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena, zeinaren bidez ebazten baita 2024-2026 epealdian Oinarrizko Ikerketako eta/edo Ikerketa Aplikatuko proiektuak egiteko laguntzak emateko deialdia.

Hezkuntza sailburuaren azaroaren 28ko Aginduak (EHAA, 246 zk., 2023ko abenduaren 28koa), 2024-2026 epealdian Oinarrizko Ikerketako eta/edo Ikerketa Aplikatuko proiektuak egiteko laguntzak emateko deialdia egiten du.

Hautapen Batzordeak aginduaren 10. eta 11. artikuluek ezarritakoaren arabera esleipen-proposamena egin zuen. Proposamen hori ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen 1. eranskinean ageri diren erakundeei bertan zehazten diren diru-laguntzak ematea Oinarrizko Ikerketako eta/edo Ikerketa Aplikatuko proiektuak egiteko.

Bigarrena.– Ebazpen honen 2. eranskinean ageri diren Oinarrizko Ikerketako eta/edo Ikerketa Aplikatuko proiektuetarako laguntza-lerroan aurkeztutako eskaerak ezestea, bertan adierazten diren arrazoiengatik.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka gorako errekurtsioa jarri ahal izango da Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena egoitza elektronikoaren iragarkitaulan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, sinatzen den egunean.

ADOLFO MORAIS EZQUERRO

Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea